



## URTEKO GRAL-MAL TXOSTENA

### 2024-25 ikasturtea

#### EGINDAKO JARDUERAK

#### Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua eta Negozioen kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikoitza

- Egoitzako GrAL-MAL batzordea, bitan bildu da: 2024/10/09 eta 2025/02/24.
- Urteroko GrAL mintegirako bi data proposatzen dira, apirilaren 2 eta 9a, euskera eta erderaz hurrenez hurren, 10:00etatik, 11:30etara.
- Enea Ispizua eta Bakarne Altonagak eman zuten urteroko mintegia.
- Gradurako 123 gai eskaini ziren, eta 30 gradu bikoitzerako Sailentzako irakaskuntza karga proporcionalarekin.
- Empar Pineda, María Aculodi, Euskadiko Graduatu Sozialen Kontseiluko eta Justizia Sozial sarietarako GrALen aukeraketa 2024-10-18an egin zen.
- GrAL azpibatzordetik, Irakaskuntza gidaren doiketa egin zen, EHUKO arautegiari doitzen, baita Fakultateko arautegiari ere. Horretarako, sailetako koordinatzaileekin bilera bat egin zen 2024ko azaroak 4an. Azkenik, irakaskuntza gidaren doitza Fakultateko GrAL-MAL Batzordean berretsi zen, 2024-11-11an egindako batzarrean.

#### Gizarte Langintzan Gradua

- GrAL prozesua, data garrantzitsuak:
  - Mintegia, irailak 29an..
  - Urriak 16an astean esleipenak argitaratu dira.
- GrAL koordinatzaile berria izendatu da, Oier Ochoa de Aspuru.
- Irakasleen gaien zerrendak berritu dira eta sailei tutoreak zeintzuk diren galdezu zaie.
- Ikasturte honetan ere, bigarrenez, deialdi guztiak ADDIren bitartez kudeatu dira.
- ADDI prozesua. 2022-23 ikasturtea baino lehenagoko bikain atera dituzten GrAL guztiak, ADDI plataforma igo eta webean esteka bat jarri da, eskuragarri egoteko.
- Lía González irakasleak, irakasle heldu berriei lagundu ahal dien GrALa egiteko gidalerroak diseinatu ditu.

#### Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra

- Urtero bezala ikaslegoari prozesuari buruz informazioa luzatu zaio bi momentutan:
  - Lehenengo mailako ikasleei harrera jardunaldian,
  - Bigarren lau hilabetearen erdialdean.
- Urtero bezala ere Webean eguneratu izan dira:
  - MAL zuzendarien zerrenda.
  - Azken ikasturteko MAL izenburuen zerrenda
- Idazkaritzako langileekin lehen kontaktu bat izan dugu MALak ADDIren bitartez ere kudeatzeko aukera-beharra ikusteko. 25-26 kurtsoan zehar jorratuko dugu gaia 26-27 kurtsora begira.
- MALaren gidaliburu eguneratzen ari da eta horretarako GRALEko gidaliburu berria eredu hartu da esparru berriei dagokionez (ODSak, Etika eta abar). Esan behar da tutoreek badutela honen berri (Azken finean GRALEko zuzendariak ere badira) eta jada ari garela puntu horiek ere kontuan hartzen.

## **Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra**

- Tutoreen zerrenda egunera da.
- Egelan MALaren prozesu akademiko eta administratiboaren berri eman zaio ikaslegoari.
- MAL epai-mahaiak jakintza eremuen arabera antolatu dira. Horrela, hiru epai-mahai egin dira bi deialdian: 1) Zuzenbidea, 2) Ekonomia eta 3) Soziologia eta Psikologia Soziala.
- Masterreko irakasleen urteko bileran MAL-a egitean IAren erabilerari buruz hausnartu da. 2025-2026 ikasturtean Bigarren mailako ikasleekin MAL-ari buruzko prestakuntza-tailer bat egitea erabaki da, eta gai hori sartuko da.

## **EMAITZA KUANTITATIBOAK / RESULTADOS CUANTITATIVOS**

### **Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua**

- 67 GrAL defendatu ziren: 4 urtarrilean, 48 ekainean, 15 irailean. 2 ikasle izan ziren gainditu ez zutenak. Egindako defentsa guztiak, 10 (%15,38) euskaraz izan dira, eta 55 (%84,62), erderaz.

### **Negozioen kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikotza**

- 25 GrAL defendatu ziren: 1 urtarrilean, 21 ekainean eta 3 irailean. Ez da ez-gainditurik egon. Egindako defentsa guztiak, 10 (%40) euskaraz izan dira, eta 15 (%60), erderaz.
- Matrikulatutako ikasleria guztiaren artean, 20k bi GrALak defendatu eta gainditu dituzte, eta graduatu dira. 8k bakarra defendatu dute.

### **Gizarte Langintzan Gradua**

- 2024-25 ikasturterako 153 GrAL egon dira matrikulatuta. 2025-26 ikasturterako, kopuru berdina.
- Orokorean, GrAL prozesuari buruz lortutako inkestetan emaitza kuantitatibotan, 4 baino puntuazio altuagoa lortu da.
- Defendaturiko GrALak: otsailean 5 (3 euskeraz), Uztailoko deialdian 81 (51 euskeraz), eta iraileko deialdian 19 (6 euskeraz). Guztira, 105 (60 euskeraz).
- Ikasleen praktika eremuarekin harremana duten GrALen kopurua, 66 izan da.

### **Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra**

- 17 MAL defendatu dira, 15 otsailean eta 2 Uztailean
- Bi ikaslek hurrengo ikasturterako utzi dute.
- Oraindik ere beste bi ikasle ditugu aurreko ikasturteetatik MALa defendatu barik, matrikulatu ere ez dira egin eta.
- 12 tutore parte hartu dute, aurreko urteen antzeko kopurua baina ikasle gutxiago direla kontuan hartuta, banaketa handiagoa izan da. Irakasle batzuk 2 lan izan dituzte baina gehiengoak lan bakarra.
- Notak, 7 eta 9,5 artean egon dira.
- Beste behin ere gai anitzasun zabala egon da, tartean zenbait gai berri. Langile Autisten babes, Geriatrikoak, gero eta ohikoagoak den ziber-jazarpena edo 3D inprimaketa
- 4 lan enpresa praktikekin lotuak daude, zertxobait jausi zaigu adierazle hau.

### **Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra**

- 22 MAL defendatu dira, aurreko urtetan baino kopuru pixka bat altuagoa
- 13 tutore hartu dute parte.
- Lortutako batezbesteko nota 7 izan da.

- Gai mota ezberdinak detektatzen dira, analisi psikosozialak edo aspektu juridiko eta legalak adibidez.

## **EMAITZA KUALITATIBOAK**

**Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua eta Negozioen kudeaketa eta Lan  
Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikoitza**

- Aurreko ikasturtearekin aldaratuz, defentsa kopuruaren gutxitzea eman da (84tik, 68ra). Emaitzei dagokiela, antzeko zenbakiak ikusten dira, bai LLHH eta GGBB graduan zein Negozioen kudeaketako GrALetan.
  - Halaber, Graduko GrALetan, euskarazko defentsen beherakada eman da (%15), azpibatzordean kezka sortarazi zuena.
  - Gradu bikoitzeko GrALetan, portzentaiak antzekoak mantentzen dira.

Gizarte Langintzan Gradua

- Orokorrean, GrAL defentsa kopurua txikitu egin da. Horrek, hurrengo ikasturterako irakasleon lan zamaren areagotzea dakar.
  - ADDI prozesuaren sistematizazioa lortu da, idazkaritza-GrAL koordinazio eta liburutegiarekin prozedura zehaztu delarik.
  - GrALerako protokoloa ere zehaztu da dokumentu baten bitartez, arduradun guztien egin beharrak adieraziz.

Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra

- Prozesua orokorrean esan behar da pozteko modukoa dela, MALAa datorren urterako utzi duten bi ikasle horienetan alde batera utzita.
  - Ikasleen asebetetze maila prozesuarekiko nahiko altua da Egresatuen Profila egiteko erabiltzen dugun inkestaren arabera: Arautegia eta kudeaketa 4,18/5 eta Laguntza eta zuzendaritza 4,25/5
  - Poliki-poliki tutoreen taldea zabaltzea lortu dugu lan karga irakasle gehiagoren artean banatuz.
  - Ikasleek beraiek gaiak proposatzen ari dira eta poztekoak da gai berriak eta aktualitatezkoak ere badaudela ikustea.
  - Alde negatiboan agian aurten lan gutxi izan ditugula praktikei lotuta.
  - Bestalde MAL bat EHuko argitaletxeko kolekzioan argitaratu egin dugu, Masterraren dibulgazio eta ezagutzaren transferentziarekin lotutako helburua betez. Hain zuzen ere bi urterik behin lan bat argitaratzea dugu helburu (tokatzen ez den urteetan Mahai Ingurua antolatzen da).
  - 3 MAL euskaraz defendatu dira.

Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra

- Oraindik ez da ondo jasotzen zuzendarien asebetetzea.
  - Balorazioak:
    - 8. Galderan. Zuzendaritza eta MAL arautegiaren balorazioa: 4,1/5.
    - 9. Galderan. MAL kudeaketan balorazioa: 4,1/5.

## HURRENGO IKASTURTERAKO ALDAKETAK

### Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradua eta Negozioen kudeaketa eta Lan Harreman eta Giza Baliabideen Gradu Bikoitza

- Gradu zein gradu bikoitzeko GrALen irakaskuntza giden berrikuntzan lan egiten jarraitzeko beharra ikusten da, AA tresnen (ChatGPT adibidez) erabileraren aurrean erabileraren aipamenen inguruan, Gradu eta Eraldaketa digital errektoreordetza honen inguruan praktika onen gida argitaratu bitartean behintzat.
- GrALak euskaraz defendatzea sustatzeko ekintzak pentsatu beharko dira. Urriak 14an egindako azpibatzordean, zenbait neurri planteatu ziren, GrAL-MAL Batzordean egiten diren hausnarketen zain.

### Gizarte Langintzan Gradua

- Webgunean ADDIko estekari zabalpena ematea.
- Irakaskuntza gidan aldaketa txikiak egin behar dira: letra mota eta errubrika doitu.
- Irakasleek, Adimen Artifizialari buruzko gidaritza zehatzagoa eskatu dute azken bileran.
- Ebaluazioan, ahozko parteari pisu gehiago eman beharko litzaiokela diote zenbait irakaslek.

### Laneko Segurtasun eta Osasuna Unibertsitate Masterra

- Prestatua zegoen MAL prozesuarekiko tutoreen asebetetzea baloratzeko mekanismo bat ezartzea 2024-25 ikasturterako baina ez da egin eta 25/26 kurtsoan egindo da. Unikuden ekintza dago.
- Webean dagoen MALari buruzko edukia egokitu behar da osorik ez dagoelako eta akatsak daudelako. (Irakasleak, gaiak, gaitasunak, ....) Hau ere 24/25 urtean egiteko zen baina ez dugu egin eta 25/26rako geratu da. (Unikuden Ekintza)
- 25/26 kurtsoan zehar MALak ADDIren bitartez ere kudeatzeari buruzko hausnarketa amaitu beharko dugu 26-27 kurtsora begira.
- 25/26 kurtsoan zehar MALaren gidaliburua eguneratuko dugu 26/27 kurtsoari begira

### Giza Baliabideen eta Enpleguaren kudeaketa masterra

- MAL prozesuarekin tutoreek duten asebetetzea baloratzeko mekanismoak ezarri.
- Prestakuntza-tailerra bigarren mailako ikasleekin
- Masterraren graduazio tasa hobetu da baina honen inguruan lanean jarraituko da.

Batzordeburua:

Amaia Inza Bartolomé